

ERREMONTEA - CASINO KURSAAL BURUZ BURUKO TXAPELKETA

Etxabek Ezkurra amets, gaur Galarretan

■ Koteto Ezkurra eta Jokin Etxabek Erremonte txapelketako azken ligilan sartzea jokatuko dute gaur arratsaldean ■ Ezkurra da faborito eta dio oso zentratuta eta forman dagoela ■ Etxabe ere sasoiko dago eta esan du sustoa ematen saiatuko dela ■ Partidua, 17:00etan.



JOKIN Etxabe erremontistak bere bizitzako partidurik garrantzitsuena jokatuko du gaur Galarretan. Ezkurra txapel-duna izango du Etxabek aurrean, zortzigarren txapelaren bila dijoana. Hernanin bizi den azkoitiarrak sustoa eman nahi du eta irabazten badu, txapelketako azken ligilan sartuko da, Zeberio II eta Eizagirrekin batean.

Etxabek Kronikari aitortu dio ohore handia dela txapelketan Ezkurraren kontra jokatzea eta oso-oso zaila izango dela Doneztebeko pelotaria mendeen hartzea: "Ezkurrari ez diot puntu ahulik ikusten. Irabazteko gertatu beharko du nik egun ona izatea eta berak txarra" dio binaka bi txapel jantzi dituen atzealariak. Bestalde, ordea, Eizagirrek Lizaso kanporatu izanak erakusten du faborito izatea ez dela nahikoa aurrera egiteko.

"Formaz oso ondo nago"

Jokin Etxabek bere burua oso ondo ikusten du formaz, nahiz eta aitortu abuztuan partidu gehitxo jokatu behar izan dituela. Astelehenean jokatu zuen azkeneko partidua, astear-tean entrenatu eta asteazkenean deskantso hartu zuen. Aurtun 30 urte bete dituen erremontistak uste du sakean egongo dela klabea, eta gero atzera jokatzea eta tantoa dominatzen.

Materialari dagokionez, Jokin Etxabe gustora dago aurtengo txapelketan dabil-tzan pelotekin. Ligilari buruz eta txapelketan gelditzen denari buruz, Etxabek nahiago du ez hitz egin: "Neretzat Ezkurrari irabaztea txapela irabaztea bezala da".



Jokin Etxabek bere bizitzako partidurik garrantzitsuena jokatuko du gaur. Bere ustez sari bat da Ezkurraren kontra jokatzea.

Ezkurra gogoz eta zentratuta Ezkurrarentzat partidu berezia izango da gaurkoa. Orain artean bezala Ezkurra ez da zuzenean sartuko finalean, eta gaur irabazi egin beharko du azken ligila jokatze ezker. Sistema berriari arriskuak ikusten dizkio txapeldunak, baina, uste du txapelketak berak irabazi egiten duela, politagoa delako.

Doneztebeko pelotariak Kronikari adierazi dio zentratuta, gogoz eta lasai dagoela. Ezkurraren hitzetan, ordea, aurreneko partidua jokatu arte ezin da jakin norbera benetan

JOKIN ETXABE

ERREMONTISTA

"Neretzat Ezkurrari irabaztea txapela irabaztea bezala da".

nola dagoen. Abuztu hasieran belaunetan arazo batzuk izan zituen, baina, erabat osatuta omen dago.

Ezkurra aterako da gaur

KOTETO EZKURRA

ERREMONTISTA (TXAPELDUNA)

"Txapelketa sistema berri honek baditu bere arriskuak, baina, politagoa da".

faborito, baina horrek ez omen dio barrurik estutuko. Gehiegizko konfiantzarik ere ez du nahi nafarrak "Partiduak jokatu egin behar dira". Ho-

rretarako, gaur ere bere joko egitea du helburu Etxaberen kontrako partiduan.

Aurrera begira, Ezkurra ez du pauso luzegirik eman nahi eta nahiago du partiduz partidu joan, zortzigarrenaren bila.

Gaurko erremonte jaialdiak, beste hiru partidu izango ditu. Altuna II-Lizasok Bitoria-Bereziartua-Aizpururen kontra jokatuko dute. Zalakain-Gaztelu Uterga-Landerren kontra arituko dira. Azkeneko partiduan, Iribarren-Auzmendi Sarasua eta J.Etxebarriaren kontra jokatuko dute. □

HERNANI TABERNA
Tilosestako taberna berria

- Gosariak
- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Hamburgesak
- Sandwichak

Terraza, telebista,...

HERNANI TABERNA - Ezkiaga pasealekua -
943 55 44 76 - HERNANI

ZINGI-ZANGA
Jatetxea

Eguneko menuak
Asteburuan afariak

Florida 54
943 33 03 97

ZINGI - ZANGA
Eguneroko menuak.
Asteburuetan afariak.

GALARRETA JAIALDI

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00 ETATIK AURRERA
ERREMONTE JAIALDIA:

1. partidua: Zalakain - Gaztelu / Uterga - Lander
2. partidua: "Casino Kursaal" txap.: Ezkurra - Etxabe
3. partidua: Altuna II-Lizaso / Bitoria-Bereziartua-Aizpuru
4. partidua: Iribarren - Auzmendi / Sarasua - J.Etxebarria

MUSIKA HAMABOSTALDIA CHILLIDA-LEKU MUSEOAN



Nicolas Hodges piano jole britaniarrak Chillidaren omenezko kontzertua eman zuen Zabalagan.

Janáček Laukote txekiarra gaur

- Janáček Laukotea munduko laukoterik onenetakoa jotzen dute musika adituek
- Emanaldia arratsaldeko 20:00etan izango da Chillida-Lekun

JANÁČEK Laukoteak eman go du gaur kontzertua Chillida-Lekun, Musika Garaikide zikloaren barruan. Janáček Laukotea Txekiako taldea da eta Leos Janáček (1854-1928) musikariaren izena daramaki. Janáček Laukotea 1947 sortu zuten Brno hiriko kontserbatorioko ikasleek, eta gaur egunean munduko laukoterik onenetakoa da, adituen esanetan. Hernanin, Janáček Laukoteak hiru konpositoren

obrak interpretatuko ditu, eta konposizioetako bat gaur estrenatuko du Chillida-Leku museoan. Martin Vitous-en (1968-) *Zeitalter Der Fische* obrak Pablo Sorozabal konposizio lehiaketa irabazi zuen eta Hernanin izango da estrinaldia. Horrez gain, Bohuslav Martinu (1890-1959) eta Leos Janáček beraren obrak joko ditu Txekiako laukoteak.

Laukoteak bi biolin (Milos

Vacet eta Vitezslav Zavalidik), biola (Ladislav Kyselak) eta biolontxelo (Bretislav Vybiral) ditu. Kontzertua arratsaldeko 20:00etan hasiko da.

Iñaki Fresanen ahotsa bihar Ostiralean, gaur egun puri-puritan dauden beste bi artista handi entzun eta gozatzeko aukera izango da Zabalaga. Iñaki Fresan baritonoa eta Juan Antonio Alvarez Parejok 8 autoreren obrak interpretatuko dituzte. □

Gabino Etxeberriari egitekoa zioten omenaldia atzeratu egin da

LARUNBAT honetarako Gabino Etxeberriari omenaldia antolatua zegoen, baina, antolatzaileek Kronikari adierazi


diotenez, ekitaldia atzeratu egin da, eta oraindik erabakitzeke dago noiz egingo den. Gabino joan den ostegune-

an iritsi zen Hernanira, Frantzia 7 urte preso egonda, eta herritik kanpora 24 urte egingo da. □

Xabier Narbarte txistularia omendu zuten Aranoko San Roke egunean


■ Narbarte aranoarrak 25 urte daramazki San Roke egunean txistua jotzen.

XABIER Narbarte aranoarra San Roke egunean omendu zuten Aranon, 25 urtean San Roke jaietan txistulari lanetan aritu izan delako. Narbarte Bartzelonan bizi da, baina, ez du harremanik galdu bere herriarekin, eta urtero etortzen da San Roke jai inguru honetan. Xabier Narbarteri plaka eman zioten, eta txistulariek bere omenez jo zituzten pieza batzuk. □



Xabier Narbarte ezkerrean, plaka eman zioten momentuan.

HERNANIKO IBILBIDEAK




Ibilbide gehiena Oindiren Urumea aldeko hegalean egiten da.

Pardiolatik Zahatzaingo buelta, Oindiren mendi-hegalean

■ 4 kilometroko buelta da ■ Bidean harrian grabatutako gurutzeak ikusi litezke, kondaira asko sortu dutenak.

OINDI mendia inguruak ezagutuko ditugu gaurko ibilaldian. Pardiola baserrietatik Zahatzain baserrira igo, Urumea ikusten dela, eta handik Pardiolarara jaitsi, bidean mito asko sortu dituzten Argurutzeak ikusiaz. Ibiak 4 kilometro ditu Pardiolatik abiatuta. Pardiolaraino oinez joan behar badugu, beste 3 kilometro kalkulatu behar dira.



Pardiola baserriak. Hemen ezkerretara hartu behar da.

Pardiola baserriak

Pardiola baserrietara Osiñagatik sartuko gara. Loidiko zubia pasa eta Otsua-enea eta Eizmendi sagardotegietara hartu. Sagardotegiak eskubitarara utzita, bidean gora segi bukaera arte. Horiek dira Pardiola baserriak. Hor ezkerretarako bidea hartu behar dugu Txabolategi baserrira eta Txabolategi ezkerrean utzita, Lepotxikiko bide gurutzera iritsiko gara, berehala. Lepotxikin lau pista dauzkagu aukeran. Guk eskubitarara ateratzen den bigarrena hartu eta horri segi behar diogu eta Zahatzain baserrira iritsiko gara. Zahatzainen eskubira eta gora jo behar dugu eta berehala bide gurutze batera iritsiko gara: berriz eskubikoa hartu eta pista horrek eramango gaitu bueltan, Pardiolarara.

Argurutze

Zahatzaindik Pardiolarara bueltan gatzela, ezkerretara baso batean harri handi batzuk daude. Horietako bitan gurutzeak daude markatuta. Leku honi Argurutze deitzen zaio eta esames eta kondaira askoren sorlekua izan da. Batzuek Santiagoren zaldiak utzitako arrastoa dela diote. Beste batzuek diote altxor bat dagoela harrien azpian. Badira Santson eta jentilekin lotzen dutenak ere, eta bada beste kondaira bat leku arriskutsu eta gaiztoa dela esaten duena.

* Ibilbide hau *Hernanin Zehar* Dobera Euskara Elkarteko kultur koadernotik aterea da. Kultur koadernoaren egilea Xabier Santa Cruz da. □



Pardiolatik berehala dago lepotxikiko bide gurutzea.



Zahatzain baserrian gora hartu behar dugu.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 332288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941
- ▶ Guez: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6 ☎ 943 363549

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, 10:00etatik 13:30etara. ☎: 667 019274.

Hernanin ogi banatzailea behar da. ☎: 609 543900 (19:00etatik 20:00etara).